

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen dekretua, 2019ko irailaren 13koa, "José Uruñuela" udal dantza kontserbatorioa tokiko erakunde autonomoko zuzendaritza-kontseiluko lehendakaritza eskuordetzeari buruzkoa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren azaroaren 12ko 258/1996 Dekretua —urtarrilaren 30eko 11/2007 Dekretuak aldatua— Euskal Autonomia Elkartearen unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza ematen duten ikastetxe publiko guztiei aplikatzekoa da, Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 1. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan xedatzen den moduan. Aipatutako dekretuak xedatzen duenez, ikastetxe bakoitzean ordezkari-organoren goren hautatzeko eratzeko hauteskunde-batzordeak dagokion udalari eskatuko dio organo horretarako ordezkari bat izenda dezan.

"José Uruñuela" udal dantza kontserbatorioko hauteskunde-batzordeak eskabidea egin duelarik, eta Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124.4.a eta 5. artikuluek nire gain utzitako eskumenez baliatuz, hau

Ebatzi dut

Estibaliz Canto Llorenteri eskuordetzea Udalaren ordezkari "José Uruñuela" udal dantza kontserbatorioa tokiko erakunde autonomoko ordezkari-organoren goren, hura baita halaber zuzendaritza-kontseiluko lehendakaria.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 13an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE